

KULTURA ABESBATZAK EMANALDIA ESKEINIKO DU DURANGON  
SUTONDOAREN EPELEAN BULLYING-A JASAN ZUEN SORALUZETAR BAT


# **piipilean**

*Soraluzeko Hamabostekaria* 97. alea 2004ko urriaren 10a



**Jokin Oregi**

**mila zeregin  
mila aurpegi**



Tornileria-estanzazioa  
eta  
extruzioa hotzean

# GOL

GOL industriak S.A.  
Sagar Erreka, 19 45 PK  
Telefonoa: 34 943 75 21 00  
Faxa: 34 943 75 17 12  
20590 SORALUZE

# Limpiezas Soraluze

**Denetariako Garbiketak: - Ofizinak**

**- Eskolak**

**- Portalak**

**- Tailerrak**

**- etab..**

**Telefonoak : 943753079 / 690792816**



## BULLYING

AIORA ELIZBURU

Uda Menorcan pasatu dut; han nengola bi gizona kok beraien buruaz beste egin zuten denbora tarte gutxian. "Tramontana" haizeak eragina omen du; hau da bertako jendeak dioena. Ciudadellako lagun batek ea nire herrian horrelakorik gertatzen den galdetu zidan eta nik ezetz erantzun nion, gutxitan ematen den zerbait dela. Kasualitatez, Menorcatik bueltatu eta egun batzuetara Hondarribiko mutil gazte batek bere buruaz beste egin zuela irakurri nuen egunkarian. Hamalau urteko Jokin Zeberioz bullying sindromearen ondorioz bere bizitzarekin bukatzea erabaki zuela zirudien. Eta zer da bullying? Hitz berria niretzat; askorentzat ziur aski.

Interneten murgildu eta zerbait aurkitu nahian, Donostian gazteen %13,7ak bullying-a pairatzen duela ikusi dut (hau da ikerketa baten emaitzak dioena behintzat). Dirudenez, ingelesetik datorren hitz honen esanahiak "akoso" jarraituarekin dauka zerikusia (ez da noizbaiten soilik gertaturiko zerbait, baizik eta denboran zehar ematen den mehatxu bat dela esan daiteke).

Hondarribitar nerabearen kasura bueltatuz, mutiko honek bullying-a zortzi ikaskideren aldetik jasan zuela esaten dute, eta horren aurrean ikasle hoiek zigortuak izan dira. Ezingo dute institutu hortan euren ikaskideekin ikasten jarraitu, hau da, egunean bi orduko tutoretzak izango dituzte soilik, eta gainerantzean etxean jarraitu beharko dituzte euren

ikasketak. Ez dut uste erabaki egokia denik, hots, arazoaren mamira joan beharko ginatkeelakoan nago. Mutil hauek etxean geratzeak zerbait konponduko al du? Hala ere, Hezkuntza Sailaren esanetan zuhurtziazko neurri bat da, bestelako neurri zehatzagoak hartu artekoa. Neurri zehatzago hauek hobeak izango direnaren esperantza daukat.

Arazoaren mamia aipatu dut eta horrek gogoeta sakon bat egitea dakar. Denok egin beharko genukeen gogoeta. Mehatxuak, borrokak, "agresioak"... gero eta ugariagoak dira haurren eta honen aurrean konponbide bat aurkitu beharko da. Baloreetan hezitzea eskolaren erronka bat bada ere balore hoiek guztiago landu beharko dira aspektu guztietan (solidaritatea, elkarrizketa, tolerantzia, justizia...), gizarteak ahaztuak dituela baitirudi, eta horrez gain inteligentzia emozionalak barne hartzen dituen osagaiak kontutan hartzen hasi beharko gara (enpatia, autokontrola, autoestima...). Inteligentzia emozionala gizakiak sentitzeko, ulertzeko eta emozioak kontrolatzeko duen gaitasuna da, eta gaitasun hori erabiltzen ikasi beharra daukagu.

Bizi garen mundu honetan bullying fenomenoaren leku eta aspektu ugari eta ezberdinetan ematen da, eta ondorioz eragina dauka guztiongan, honegatik bai eskola mailan bai gizarte mailan eskuhartu beharko dugu, arazo sozial bat da eta.

## Telegrapak

Kaixo irakurle. Stop. edo txutxumutxuzale. Stop. ongi etorri gure editorial ezkutura. Stop. atzeko tutura!. Stop. lore eta kaka morkordo haundixenak botatzen dittugun lekura!. Stop. eta aurkezpenaren ostian... guazen arira. Stop. (gai asko dauzka gu komentatzeko eta!). Stop. nundik hasiko gara... Stop. benga guazen homosexualen ezkontzekin. Stop. jesuuussss!. Stop. makina bat gauza ikusteko jaio gara mundura eh!. Stop. bi gizon edo bi andra altarera... Stop. uff!. Stop. eskerrak plaentxian ez dagan!. Stop. eta adopziñuana. Stop. aitaren eta semiaren... Stop. zer ez ete dotse esango eskolan bikote horren seme alabei... Stop. ze gaztetxuak oso gogorrak dira holako kontuetan eh!. Stop. zegaittik? juan zaitte jakitzera!. Stop. seguru bideo jokuegaittik dala!. Stop. fijo! fijo!. Stop. ze etxian eta kalia dana errespetua, bakia eta holako letxiak erakusten jakuez eh!. Stop. beraz... Stop. San Rokek Txikik lagundu deixala!. Stop. ia futbolari laga eta... Stop. "ama dantzari izan nahi dot!". Stop. esaten hasten diran. Stop. edo artista Jokinen moduan... Stop. ze futbolian... Stop. irain eta garrasi asko ta... Stop. jubilatua Karibera!. Stop. horrek bai dakixela!. Stop. ixil ixilik, ttak!. Stop. eta zinegotzixak... Stop. %21eko igoera soldatetan. Stop. baina horrekin hobe ixilik egoten bagara. Stop. ia hasarretu eta guriak bajatu bihar doskuezen! agur!



Argitaratzailea:

Pil-pilean Kultura Elkarte  
Frontoi kalea 5. behe, PK 27 - 20590 Sorluze.

Telefona 943 75 13 04

comunidades.kzguna.net/PilPileanKulturaElkarte/EU  
pilpilean@euskalnet.net

**Erredakzio burua:** Egoitz Unamuno

**Erredaktoreak:** Eguzkiñe Aldazabal, Enara Agirre, Gurutze Ariznabarreta, Jon Basauri, Xuban Catalan, Ugaitz Catalan, Aitor Madrid, Eduardo Pombar, Eneko Beretxinaga, Gorka Salaberria, Egoitz Unamuno eta Arianne Unamuno.

**Publizitatea:** Ugaitz Catalan (943 75 13 04)

**Logotioa:** Jon Gabilondo  
(943751304 tel.)

**Banaketa:** Pil-pilean **ekoizpena:** 1.850 ale

**Inprimategia:** Gertu Koop.

**Azala:** Pablo Galarraga

**Diseinua eta Maketazioa:** Aitor Madrid

**I.Z.K.-a:** G20696563 **Lege-gordailua:** SS-537-2.000

*Pil Pileanek ez du bere gain hartzen aldizkariko esanen eta iritzien erantzunkizunik.*

Aldizkari honek erakunde hauen dirulaguntza jasotzen du euskara bultzatzeko.




SORLUZEKO  
UDALA



EUSKO  
JAURLARITZA



GIPUZKOAKO FORU  
ALDUNDIA



## Erreportaia

*Jokin Oregi Iñurrieta plazentziarra antzerki munduan murgilduta dabil gazte gaztetatik. Hogeitamalau urte dauka eta Plazentzia bihotzean daraman arren, Bilbao handian bizi da bere emazte eta bi alabatxoekin.*

## Zorion agurrak



**Ugaitz Catalan**  
Urriaren 17an 22 urte  
Zorionak neskatila!  
Laburmetraiko ban-  
piro papela zuria  
da! Zorionak!  
Pilekuen partetik.



**asier lenin canales**  
Abuztuaren 19an  
Zorionak txikito!!  
Muxu haundi  
haundi bat.  
Etxekuen partetik.



**Sabina Oregi**  
Urriaren 5ean  
Zorionak!  
Zorionak neskatila!  
jarraitu beti bezain  
jator... bla, bla,  
bla...  
Senidien partetik.



**Oier Gonzalez**  
Urriaren 3an  
Zorionak txikito!  
Muxu haundi haundi  
bat! Pobxoloo!  
Etxekuen partez.



**Einer Ostolatza eta  
Zuhaitz Ostolatza**  
Urriaren 5ean  
Zorionak bikote!  
Muxu haundi bat eta  
segi alai alai!  
Iraulitzen partez.



**Josu Martin**  
Urriaren 11ean  
Zorionak bikote!  
Muxu haundi bat!  
Danel, Julen eta  
etxekuen partez.

**ZUZENKETA**  
Pil-pileanen 96. alean  
Zer berri atalean Oscar  
Gabilondo alkate berri  
izendatu zutela adierazi  
genuen. Ez zen hala, al-  
kate funtzioak berak bete  
arren Aberto Sudupek ja-  
rraitzen du Soraluzeko  
alkate izaten.



**Dayana Canales**  
Irailaren 21  
Zorionak!!!  
Oso ondo pasa eta txintxua izan.  
Muxu haundi bat.  
Etxekuen partetik.

### jaiotakoak

Leire Etxabe Madrid  
Aitor Estevez Viciosa  
Desiree Cortes Salguero  
Ander Pastoriza Galdos  
Narrea Cobos Gallardo  
**hildakoak**  
Manuel Andres Estevez

## Gutunak

**“Ia guriak egin du”  
lasai, oraindik ez**

Soraluzeko ibaia aspaldian kutsatuta dagoela eta berrogei ta hamar urtez azpikuak ohituta bagaude ere horrela ikusten, aurre-  
tikiuak oraindik ezin dute ahaztu orduko  
gardentasuna. Oleako presan igari egiten  
ikasi eta lana gogor egin ostian bertan har-  
tzen zituzten prexkatuak, ibai ertzean zeu-  
den fabriketan lan egiten zuten bitartian  
kainabera lehiotik behera jarri eta amorrai  
gurixak harrapatzen zituzte une haiek...  
tokitan zeudek, bainan ez, ez da dena  
galdu, udako lehorreak ibaiako ura murriz-  
ten duenean eta ibai bazterretan gelditzen  
dan hondarretan tomate landarak sortu eta  
horrek fruitua ematen duten bezela,  
herriaren erdian. Gilaneko zubipeko  
“Erreka zuloak” ematen du fruiturik asko.  
Uztaila, uzta biltzen dan hila da berez eta  
“Erreka zulo” hortan ere jaso zan uzta ugari  
eta ederra, urte osoko lanaren fruitua noski  
eta ni gaur hori aipatzera nator eta bide  
batez dagozkieneri zorionak ematera eta  
beste batzueri kontuak eskatzera. “Erreka  
zulo” izenpian eman zuten kontzierto mun-  
diala ikusi eta entzuteko paradarik ez nuen  
izan, bainan badakit zein bikain aritu ziran

eta nolako artistak dauzkagun. Alderantziz  
“Erreka pila” izenez bataiatutako antzele  
taldearen antzerkia ikusteko aukera izan  
nuen, ez ikusi bakarrik, pila bat gozatu  
nuen, beren zenbait papeletan sartuta ere  
ikusi nintzan eta benetan diot, txundituta  
utzi nindutela beren lan egiteko moduakin,  
a ze arrobia! Parte hartu zuten guztiei nere  
zorionik beroenak eta ia beste emanaldi  
bat ematen duten herrian, ze nik platera  
berriro gustora dastatuko nuke eta ikusi ez  
zutenei ikusteko konbita egin. Horretarako  
baldintza exkaxak daudela? Ez dagoela  
areto egoki bat? orain dator nere kontu  
eskatzia dagokieneri, bestalde aspalditik  
eskaten ari dirana. Politikuak haurrak  
bezela kurso berria hacia dute, ba beren  
eginkizunetan ia lehenasuna izaten duen  
eskakizun horrek, lokalik ezpadago beste-  
rik ezpada, lehenguen gan egin dituzten  
zubi berriren baten azpian antolatatu dezate-  
la zerbait, askotan gazteei buruz errexegi  
hitz egiten degu, bainan gure kulturari bul-  
tza egiteko badaukagu lehen esan bezela  
harrobi ederra eta horrela, “Orixek” zioen  
bezela, herri honi hats eman izango diogu  
eta ezingo du inoiz inork esan “Herri bat  
izan zan”.

**Karmele Ortueta**



### BEKAK

#### Turismoa

Eusko Jaurlaritzak merkatu igorleetako turismo sustapenean adituak presta-  
tzeko 12 hilabeteko iraupeneko 4 beka  
eskaintzen ditu. Baldintzak:  
Unibertsitateko goi-mailako titulazioa,  
Turismoko diplomatu edo turismoko  
Enpresa eta Jardueretako Teknikari  
(TEAT) izatea, 30 urtetik beherako  
adina izatea, eta joan behar duen  
herrialdeko hizkuntza ahoz nahiz ida-  
tziz menperatzea. Epea: urriak 14

### IKASTAROKAK

#### Defentsa pertsonala

Azkoitiko Udalak 8 orduko defentsa  
pertsonaleko ikastaroa antolatatu du.  
Ikastaroa astelehenetan emango da  
19:00etatik 20:00etara Azkoitiko Zubi  
Aurre Kiroldegian, urriaren 18an hasita.  
Bertan 13 urtetik gorako adina duen  
edonork har dezake parte Azkoitiko  
Gazteentzako Informazio Bulegoan  
(telefonoa : 943 026027) izena eman-  
da. Epea: urriak 14

### LANA

#### Irakasleen lan poltsa

Oiartzungo Haurtzaro Ikastolak,  
Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako  
irakasleen lan poltsa osatu nahi du.  
Interesatuek curriculum bidali behar-  
ko dute urriaren 13a baino lehenago  
posta arrunta edota posta elektronikoko  
bidez ondorengo helbideetara:  
Haurtzaro Ikastola, Elorrondo kalea  
z/g, 20180 Oiartzun edo  
oiartzun@ikastola.net. Epea: urriak 13

### Perkusio irakasleak Bilboko

Bilboko Udalak Bilboko Udal Musika  
Bandan lan egingo duten perkusionis-  
ten lan-burtsa eratzeko deialdia egin  
du. Baldintzak: Perkusioko espezialita-  
teko Goi Mailako Irakasle titulua eduki-  
tzea. Epea: urriak 15

### BESTELAKOAK

Pisu berritu bat salgai Soraluzen.  
615779920



Barra kargadore automatikoak  
eta makina bereziak

## ETXEHUN, S.A.L.

Mendiola Industrialdea 14-5  
Tfnoa 943 75 18 91  
Faxa 943 75 24 58  
E - maila: [etxehun@teletel.es](mailto:etxehun@teletel.es)  
[etxehun@euskaltel.net](mailto:etxehun@euskaltel.net)

20590 SORALUZE  
Gipuzkoa

## EROSLE //

### Kontsumo kooperatiba



Tel.: 943 75 13 45

## Zer irizten dotsazu?

Urriaren 1ean Espainiar Gobernuak sexu bereko pertsonen arteko ezkontzak legeztatu zituen. Ezkontzen legeztatzearekin batera, sexu bereko bikoteek umeak adoptatzeko eskubidea izango dute hemendik aurrera. Eliza izan da legeztatzearen kontrako jarrera azaldu duen gizarte eragile bakarrenetarkoa.

## Ze eritzi daukazu sexu bereko ezkontzen legeztatzeaz? eta eliziak hartu daben jarreraz?



**Jesus Mari Ojanguren**  
49 urte  
Langilia

Ondo irizten jata, bakoitzak nahi dabena egittia dauka. Elizia, apaizak... bakoitza libre da nahi dabena esan eta egitteko.



**Aintzane Maiztegi**  
25 urte  
Tabernarixa

Argi dago eskubide berdina daukela, adoptatzeko eskubidia be euki bihar dabe, umiak hezitzeke gai izan dai-tezkelako. Elizako kontuetan ez naiz sartuko.




**Tere Couto**  
58 urte  
Irakaslia

Normala da bizitza aldatzen doia eta moldatu egin bihar da. Elizian kontua errespetatu egin biharko da baina gaztiak urte batzuk aurrerago aldatuko dabela uste dot. Umiak adoptatzia be normala irizten jata.



**Jon Arieta**  
22 urte  
Mekanikua

Eskubide berdina dauke, norberak ikusiko dau zer egin bizitzan. Eliziak egin bihar leukena da aldatu denborekin batera.



**Gorka Salaberria**  
22 urte  
Montatzailia

Oin artian gizartiak ezarrirako moldetan oinarritu da ezkontza, prejuizio asko dare baina jentia eskubidia dauka nahi dabena umiak izan edo eta ezkontzeko. Elizako kontuekin zer esan, hainbeste gauza dakez aldatzeko...



**Arantxa Larreategi**  
53 urte  
Etxekoandria

Ondo irizten jata baina umien kontuan... umiak ondo badare ondo baina umiak igual hobeto egongo ziran aitta eta amakin bi mutil edo bi nesकिन baino. Bizimoduak erakusten dau zer egin eta igual modernizatu egin biharko leuke eliziak be.

ARRANO  
tabernia

“Giro euskalduna eta sanua”

ETORRI ETA GOZATU

etxera

ELUSKAL PRESO, DEPORTATU ETA EXILIATUAK

Telefona 75 24 09

Instalazioak  
Berrikuntzak

**Kiru**  
**Muntaiak S.L.**

Blas Elizburu Kortabarria

Sukalde, enpotratu  
eta tarima flotanteen instalazioa eta salmenta.

Amillaga, 5 20750 Bergara  
Tfnoa 943 76 99 85  
Eskuko tfnoa 615 70 27 65

# Euskararen Biziberritze planaren gazi gozoak

Soraluzeko Euskararen Aholku Batzordeak (Udaleko Euskara Teknikaria, EHE, Pil-pilean, AEK, Plaentxi Ikastetxea eta Soraluze Istitutua) azken lau urteotan Udalak herriko eragileekin garatu duen Euskararen biziberritze planaren balorazioa egin berri du. Balorazio gazi gozoa egin du, "orokorrean lau urteotan alorrik gehienetan aurrera egin bada ere, emaitzak ez dira etxalfigoak botatzeko modukoak eta izan dira behar bezala garatu gabe gelditu diren hutsuneak ere. Alorrez alor honakoa da balorazioa:

**-Irakaskuntza:** Ikastetxean eta Istitutuan ahalegin handia egin da erdal jatorridun ikasleak euskalduntzeko baina matrikulatutako %46,4ak gaztelera du ama hizkuntza eta erabilerak ez du aurrera egiten.

**- Euskalduntze Alfabetatzea:** Iharduera hau beherantz doa. Lau urtean erdira jeitsi da ikasle kopurua euskaltegian. Euskaltegiko eskeintzaren eta egoitzaren egokitasuna hobetzeko beharra azpimarratu da.

**- Administrazioa:** Udal barruko euskararen plana aplikatzeko orduan apenas aurreratu den ezer. Arduradun polliikoen interesik eza eta baliabide falta izan dira horren arrazoi nagusiak.

**- Aisialdia eta Kirola:** Aisialdian herritarren parte hartzea handia izan da eta berdin Kirola Euskaraz programan ere. Badira futbol taldea bezelako hutsune nabarmenak ere.

**- Merkataritza:** Euskara Merkataritza egitasmoarekin hasi eta erantzun polita izan du merkatarien aldetik. Errotulu eta iragarkietan euskararen erabilera handitu da.

**- Corpus-Plangintza:** Euskalkia biltzeko hitzarmena izenpetu da Badihardugu elkartearekin. Kaleko erabileraren neurketa egin da eta itzulpen zerbitzua ere eskeini da.

**- Komunikabideak:** Herri aldizkariak bide polita egin du hamabestekari moduan eta Udalak hitzarmena sinatu du egonkortasuna bermatzeko. Alor berriak lantzeko proiektuak badatoz.

**- Kultura:** Euskarazko kultur eskeintzak harrera ona izan du herritarren aldetik. Bertso eskolak hiru urteren ostean urtebeteko geldialdia izan du eta literatur lehiaketetan asko jeitsi da partehartzea. Azpiegitura falta nabarmena eta kezagarria da herrian.

Hurrengo lau urteetarako Udalarik proposatu beharreko Biziberritze Plana osatzeari ekingo diote orain aholku batzordeko kideek.

## Italiako Aosta bailarako esperientzia



Irailaren 20tik 26ra bitartean Gipuzkoako Lan Garapenerako erakundeetako hainbat ordezkari izan ziren Italiako Aosta bailara autonomoko nekazal eta abeltzantza ustiaketak bisitatzeko. Soraluzeko Udaleko Nekazaritza Batzordeburua, Iker Aldazabal, ere bertan izan zen. Ganadu esplotazioak, apikultura elkarteak, nekazal turismoak, sagar kooperatiba ikusi omen zituzten. Aostako esperientziatik bi puntu azpimarratu zitu Ikarrek, "ekoizpen eta salmenta prozesu osua kudeatzen dabela eta sare bat osatuta daguala bertako produktuak bertan merkaturatzeko.

## Nafarroa Oinezako autobusa

Pil-pilean Euskara Elkarteak datoren domekan Lizarran egingo den Nafarroa Oinezako autobusa antolatu du. Txartelak Gila, Gaztelupe eta Iratxon daude salgai eta irteera ordua 08:30etan izango da Gila zubitik.

## Gaztañerre azokako bilera eguaztenean

Urriaren 13an, eguaztena, Gaztañerre Azokako bilera egiteko deia egin du Udalak. Baserritarrak, artisauek eta egun horretan ekintzaren bat egitea aurriztuz duten taldeak daude deituta bilerara. Bilera arratsaldeko 19:00etan hasiko da Batzar Aretoan. Gaztañerre azoka azaroaren 13an egingo da.

## Dantzari izan nahi duzu?



Soraluzeko Urrats Dantza Taldeak 2004-2005 ikurturtean izena emateko epea zabaldu du urrian. Gaztetxoez gainera aurreten nagusiek ere badute dantza taldean izena emateko aukera. Nesken

taldean izena emateko edozein bariku iluntzetan Ezozi bideko lokalera joanda eman daiteke eta mutilenean hilaren 31an 19:30etan egingo duten lehen en-tsaiora joanda.

**FER. S.A. Industriak**  
Eskulanetarako tresnak

Industrialdea, 17 - 20590 Soraluze  
Tlfonoa: 943 75 20 00 Faxa: 943 75 19 80 E-maila: fer@nexo.es

ELIZPE

h o r t z k l i n i k a

Elizburu, 3 behea  
9 4 3 7 5 2 5 6 7  
20590 Soraluze

## Zinegotzien ordainsarien igoera

Joan zen asteko eguaztenean egin zen Udaltzarrean, zinegotzien ordainsaria %21ean altxatzeko erabakia onartu zuen Udaltzarra. Gobernu taldearen proposamenak EAJren, PSE-Eren eta PPko zinegotziaren aldeko 7 botuekin eta AHen aurkako 3 botuekin egin zuen aurrera. Alderdi Popularreko zinegotziak zoriondu egin zuen Gobernu Taldea, "zinegotzien lanari dagokion duintasuna ematearren". Askatasun Haizeak taldeak berri, "gehiegikeritzat" jo zuen igoera. Beraz, Udalak onartutako igoerarekin, hemendik aurrera zinegotziek 382,68 euroko ordainsaria jasoko dute hilero.

Udaltzarrean hartu zen beste erabakietako bat, Udaleko langileen 2004.

urterako lan-baldintzak arautzen dituen hitzarmena onartzea izan zen. Udalak %3,2ko igoera onartu zuen EAJ eta PPren aldeko 6 botuekin. Alderdi Sozialista abstenitu egin zen eta AHk aurka bozkatu zuen. Gobernu taldeak EUDELeke proposatutako igoera aplikatu zuela adierazi zuen. AHk taldeak kritikatu egin zuen Udalaren erabakia eta inposaketatzat jo zuen. Oposizioko talde guztiek salatu zuten Udaleko langileekin osatutako negozio mahaian Gobernu Taldeko ordezkariak bakarrik egon izana.

Azkenik, Udaltzarrean Nerea Perez zinegotziaren dimisioa aurkeztu eta Jose Luis Badiola zinegotzi berri izendatzen dela ere jakinarazi zen.

## Lapurreta SAPAko aparkalekuan

Udaltzaingoak jakinarazi duenez, joan zen domeka iluntzean lapurretan egin zuten SAPA lantegiaren parean aparkatuta zegoen auto batean. Lapurrak autoaren bi kristal apurtu zituen euto barruan lapurreta egiteko. Udaltzaingoaz gain Erantzantza ere gaia ikertzen ari omen da.

## Ikastetxeko jantokia zabalik berriz

Urtebete baino gehiagoan itxita izan eta gero joan zen astelehenean zabaldu zuten ikastetxeko jantokia. Aurtengo ikasturterako 63 umek eman dute izena jantokian.

## Gabolatzen etxeak egiteko baimena

3Jes 99, S.L. Eraikuntza etxeak Gabolatzen kalean 12 bat etxebizitza egiteko proiektua onartu du dagoneko Udalak. Etxebizitza zaharren eraisketa baimena eman eta gero, proiektuaren bideragarritasuna aztertu du Jaurlearitzako Uren Zuzendaritzak eta honen onespina jaso ostean (aldaketa gutxi batzuekin) Udalak proiektua onartu du. Orain eraikuntza baimenaren tramitazioa bakarrik dago egiteko.

## Txolarten begiraleak behar dituzte

Deba bailarako ezinduendako Txolarte aisialdi elkarteak begiraleak behar dituela jakinarazi du. Txolarte elkarteak, ezintasunak dituzten pertsonen aisialdiko eskeintzak egiten dizkie asteburuetan, hala nola, irteera, tailer eta beste zenbait ekimen. Begirale moduan euren laguntza eman nahi duten guztiek, 625806239 telefonora dei egin dezakete (Joseba).

## Lan esperientzia ofizialki aitortzeko

Eibarko Armeria Eskolak langileek beraien lanbide esperientzia ziurtatzeko sortu berri den Konpetentzia Profesionalaren Ebaluazio eta ikuskapen dispositioa frogatu egiteko matrikulazio epea ireki du urriaren 15erarte. Sistema berri hau urritik aurrera ezarriko da Euskal Herri mailan, eta pertsonen beraien lanbide-esperientzia eta ikasketa ez formalak (kurtsoak) era ofizialean

ikuskatuak izatea utziko du. Lanbide esperientzia dela eta, modulu edota kurtsoak ikuskatu ahal izango dituzten langileek, dagozkien lanbide familiarako baimenduta dauden zentruetan egin beharko dituzte matrikulak.

Zentruetara eta moduluetara buruzko informazio gehiago lortzeko, Armeria Eskolako telefono honetara deitu daiteke: 943-203146.

## Soraluzeko olatua Kilometroetan



Soraluzetik bi autobus joan ziren domekan Orio eta Zarautzen egin zen Kilometroak 2004 jaialdira. 100 Soraluzetar baino gehiagoko olatua euskararen alde.



**PASCUAL CHURRUGA, S.A.**

Hotzian eta beruan  
jotako tornilluak

Telef. 943750006 eta 943751600 Faxa 943752461  
E-mail: [general@pascualchurruga.com](mailto:general@pascualchurruga.com)  
Errekalde 21 20590 SORALUZE



**EDURTZA** kafetegia

Taberna eta jatetxe zerbitzua

**Eguneroko  
menua eta  
pintxoak**


Telf. 943 75 13 83 Santa Ana Soraluze

# Jokin izatearen garrantziaz

Jokin Oregi Iñurrieta plazentziarra antzerki munduan murgilduta dabil gazte gaztetatik. Hogeitamalau urte dauzka eta Plazentzia bihotzean daraman arren, Bilbao handian bizi da bere emazte eta bi alabatxoekin.

Orain hilabete batzuk Goenkalen ikusi genuen mediku gaiztoarena egiten eta Gijongo lehiaketa batean sartu zutela ere jakin genuen. Jokinen berri gehiago jakin nahi eta Bilboko New York kafetegian egin genuen hitzordua. Kafetxo bat hartuz bere bizi-tzaz, antzerkiaz, kulturaz eta Soraluzez berba egin genuen. Elkarrizketa amaitu orduko antxitxika alde egin zuen Asier Ormazarekin Donostiara. Ez da geldi egotekoa ez!

Domeka honetan esterinatuko dute Arrasaten "Ezetz lepoa jarri!" antzezlan berria. Goenkaleko sekretuak ere ondo dakizki baina ez dizki-gu kontatu.



Jokin Oregi Bilboko New York kafetegian.

## Zela hasi zinan antzerki munduan?

Ni kazetaritza ikastera etorri nintzan Bilbora eta han orduan nere neskalaguna zana (gaur emaztea) ezagutu neban. Hirugarren ikasturtea hastear ginala egunkariaren baten irakurri zeban bazala Basaurin antzerki eskolaren bat eta bixok genkanez antzerkirako grina hori, izena emotia erabaki genduan. Kazetaritza amaitu eta antzerkiarekin jarraitu genduan, bost ikasturteko antzerki karrera bat modukua egin genduan Basaurin.

## Hortik aurrera zela egin zenduan bidia?

Gure kaxa hasi ginan zeozer egiten baina pauso garrantzitsua Maskarada etorri zenean emon neban. Eskolan ze jende genbiltzan ikustera etorri ziran eta Maskaradan hasi ginan batzuk. Asier Ormaza, Sorginen Laratzean ezagun egin den aktorea ere nerekin zen. Oscar Wilde idazlearen "Ernesto izatearen garrantzia" obrarekin hasi ginen eta arrakasta handia izan zuen. Eta gero eurekin jarraitu nuen.

## Lehenengo antzezlanari beti gogoratuko dozu modu berezi baten...

Bai, baina ikasten ari ginela egindako antzerki emanaldi bat da nire ibilbide guztian zehar gehien hunkitu nauena. Hirugarren ikasturtea izango zan. Nik aurretik idatzita neukan antzerki lan bat eta gelako lagun batzuk batu ginan eta Sestaoko zaharren egoitzan eskeini genuen obra bat 150 bat aiton amonaren

*"Antzerkia beti dago krisian. Asuntua oso disper-soa dago. Hemen ez dago zinearen industriarik..."*

aurrean. Oso giro berezia sortu zan. Obra hura gerra garaiko kontuen ingurukoa zen eta egoitza hartan Espainiak toki ezberdinetatik etorritako jendea zegoen. Izugarria izan zan. Gerora ere izan dira emanaldi bereziak baina ez dut berri horrelakorik sentitu.

## Ze lanetan ibili izan zara harrezkeror?

Orain zortzi urte Pausokatik deitu zidaten eta haiekin nabil ordutik. ETBko Ikusgela programan aurkezle ibili nintzen bi urtean, programa ezberdinak zuzendu izan ditut, serie bat zuzendu nuen Madrilen urtebetez, Hasiberriak serieko gidoi taldeko koordinatzaile izan nintzen bi urtetan... Batez ere zuzendari, zuzendari laguntzaile eta antzerki obrak idazten ibili naiz. Egia esateko aktore lana da azken boladan gutxien egin dudana. Azkena Goenkalen joan zen denboraldian egin nuen mediku gaizto baten paper txiki bat.

## Txontxongilo ikuskizun bategatik sari bat be jaso dozu aurrean...

Bai. Ihaz Gorakada taldetik deitu zidaten umeendako ikuskizun bat idatzi eta zuzentzeko. Neretzat berria zen bai-

na oso ondo atera zen. Jim Altxorraren Uhartean txontxongiloen antzezlanaren, Stevensonaren obraren moldaketa bat eta arrakasta handia izan du. Gijonen zuzendari onenaren saria eman zidaten obra horregatik eta gustora.

## Eta orain zertan diharduzu?

Lan egun erdia Pausokarekin egiten dut gidoigile eta beste erdia antzerki munduko lanetan ematen dut. Goenkaleko gidoi taldean nabil ihaztik eta antzerkian azken azkena jardun dudana, zuzendari laguntzaile moduan, urriaren 17an Arrasateko Amaia antzokian estreinatuko da, "Ezetz lepoa jarri" antzezlanari. Eta gero Gorakadaren obra berriarekin hasiko naiz, idatzi dudana Robin Hooden historiaren moldaketa bat zuzentzen.

## Zela dago euskal antzerkia?

Antzerkia beti dago krisian. Asuntua oso dipersoa dago. Hemen ez dago industriarik zinearen inguruan, antzerkia ere ez dago oso ondo egituratuta... Dena den nik uste defizit handiena kulturaren dagoela, ez daukagula antzerkirako ohiturarik. Jendea ez doa antzerkira lehenago joaten zen bezela edo Katalunian gaur egun joaten diren moduan. Hemen jende asko dago antzerkia egiteko gogoarekin baina ez dakit hori bat datorren gero publikoaren kopuruarekin.

## Euskarazko antzerkian gehiago igarriko da...

Nik uste dot hori euskarazko kultur-



gintzako arlo guztietan gertatzen dala, nobelagintzan, musikan... zinea eskeini-ko balitz zenbat jende joango litzateke? Hor euskarak oraindik bide luzea egin behar du. Hala eta be, nik uste dot ezin dogula gure borroka hori eten, jarraitu egin behar dogula kalitatea eskeintzen... baina horri gaineratu behar zaio proiektu bat, politikoen aldetik proiektu bat. Zabala, umetatik hasita eskoletan pertsona kritikoak bultzatuko dituen. Jaurlaritzak aurkeztu du Kulturako plan bat eta ikusi beharko da zer ematen duen. Badirudi konturatu direla hor badagoela mundu bat, egituratu gabe eta nahiko dipersoa eta horri erantzun bat eman behar zaiola.

### Ze harreman daukazu orain Soralezerekin?


Nik Soralezerekin daukadan harremana, azken boladan gehiago da nostalgiaz betetako harreman bat. Ni Plazentzia lotzen dot nere haurtzaroarekin, nerabezaroarekin, lagunekin, familiarekin... Kuadrilak eta familiak lotzen nabe Plazentziakin. Oin gutxi xamar juaten naiz egia esan.

### Herriko zinia itxita dago ixa sei urtian...

Gogoratzen naiz eliza ondoko zine zaharrera juaten ginala gaztetan. Tapa, tapa, tapa, tapa! Han ibiltzen ginan zoru astintzen "Ibooon! Hasi deila!" ta hola. Ta gero handik urten eta bakoitzak pertsonai bat hartu eta berriro berritzen genduzen istorioak. Zinerik, antzokirik gabeko herri bat herri errena da. Kultura oso inportantea da, gorputza asetzeaz gain diruarekin eta bazkariekin eta poteoekin, hori oso inportantea baita, arima ere bete egin behar da.

*"Zinerik, antzokirik gabeko herri bat, herri errena da. Arima ere bete egin behar da".*

### Mugimendu kultural pixkat bada-gog herrixan...



Kamaren aurrean irribarre ederrak egiten ikasita dago.

### *"Zergatik ez egin Plazentziako anekdotak oinarritzat hartutako obra"*

Zeozter badakit. Pil-pileanen bitartez enteratzen naiz eta lagunak be kontaktzen doste.

Enterauta nago sortu dala hor talde bat, kuadrilako bat bertan dabil, eta nik horri garrantzi handia ematen diot. Holako inizatibak oso garrantzitsuak dira. Antzerkia izan edo musika izan, kulturaren edozein alor dela eta sortzen bada talde bat, gauzak landu eta horri jarraitzen bat emoteko goguakin... Bejondeizuela! Hori herrixandako aberastasun haundixa da. Antzerki arluan esaterako, aurrera egin ezker zergatik ez egin Plazentziako anekdotak oinarritzat hartutako obraren bat? Ze Plazentziak antzerkiera eramateko moduko pertsonaje interesgarri asko eman ditu.

Bai, Plazentzian xelebre asko

egon da...

Eta umore edo izaera berezi bat bebai. Nik bizi izan dotena behintzat bada umore sano bat, geure buruaz barre egiteko gaitasunakin... beste herri batzuetan aitortu izan doste "joe zuek Plazentziarrak zelakuak zaretin!" . Ni gogoratzen naiz nere osabari entzuten zelako gustora egoten nintzan umia nintzanian, gerrako kontuak eta. Nere aitxitxa Benantzio Inurrietan kontuak be askotan kontaktzen dittut. Anekdotak askoren artean, goguan dot, zela aitxitxa jua zan behin ibaira eta han ijitto batzuk zeren eta han liskarrian hasi ei ziran. Nere aitxitxak demasa esan bihar zebalakuan esan ei zotsan "calla! Que hasta al perro le teneis con hambre!" eta ijittuak lasai lasai eta serio serio erantzun ei zotsan, "claro! Como que no le damos de comer!". Eta hortik aitxitxak leziño edar bat jaso zebala esan ei zeban, "nik bere kontra demasa bota eta berak buelta emon trankil trankil!". Ikasgai hori etaratzeko ahalmena izatia da inportantia, horrek hunkitzen nau.




**HNOS. BENITO ANAIAK**

ETXEKO ETA SUKALDEKO ALTZARIAK

Eskatu presupuestoa konpromisorik gabe


Santa Ana, 26 • Tel. y Fax (943) 75 20 47 • 20590 SORALUZE-PLACENCIA (Gipuzkoa)



**Jose Antonio S.L.**  
igeltzeritza

Gabolatz, 19 - Telefonoa 943 75 11 14 - 943 75 24 49  
20590 SORALUZE (Gipuzkoa)

## Euskal musika talde berrien gida



Gazte Sarea elkarteak, euskal musika talde berrien promoziorako Musikagida egitasmoaren berri eman du azken asteotan.

Gida horren helburua musika talde gazteak (maketeroak deitzen zaientak, edota disketxe alternatiboekin soilik editatzen dutenak, edo diskarik inoiz argitaratu ez dutenak) liburuxka batetan bildu eta beraiekin kontaktuan jartzeko erraztasunak ematea da.

Parte hartzeko egin beharrekoa oso erraza da, sartu [www.musikagida.gaztesarea.net](http://www.musikagida.gaztesarea.net) helbidean eta bete azalduko zaizun fitxa. Edo bestela, deitu honako telefono honetara: 943.593588. Izena emateko azken eguna urriaren 28a izango da.


Azkenaldian Soraluzen musika mugimendu handia dago. Matxura eta Kalaña taldeak esaterako hasi dira han eta hemen kontzertuak eskeintzen.

### Igelaren Banda urriaren 16an



Igelaren Banda folk taldeak kontzertua eskeiniko du datorren zapatu gauean Gaztetxean. Kontzertu akustikoa izango da, Bixente Martinez, Txarli de Pablo eta Iñigo Egia musikari ezagunen eskutik. Pil-pileanek antolatutako emanaldia izango da.

### Bertso bazkaria urriaren 30ean



Datorren urriaren 30erako (zapatua) bertso bazkaria antolatu du Pil-pilean Kultura Elkarteak. Xabier Amuriza eta Igor Elortza bertsolariak izango dira San Andresen egingo den bazkarian eta dagoeneko sarrerak salgai daude herriko tabernetan.

### Abesbatzaren emanaldia Durangon

Zapatuan, urriaren 9an, Ezoziko Ama abesbatzak emanaldia eskeiniko duen Durangoko X. Txistu Kontzertuaren barruan. Jaialdia ETBk grabatu zuen eta datorren astean edo hurrengoan eskeiniko omen dute.

### Jubilatuak Karibera

Debabarreneko jubilatuen elkarteak Errrepublika Dominikarrekoko Punta Cana kostaldera 20 lagunendako bidaia antolatu dute azarorako. 9 Eguneko bidaia izango da eta 699 euroko prezioa izango du. Urriaren 20arte izango da zabalik izen ematea.

### Soraluze Luberri egitasmoan

Euskal Herriko Bertsozale Elkarteak eta Euskadiko Kutxak elkarlanean osatutako proiektua da "Luberri" ("Bertso lurra berritzen"). Egitasmo honen helburua saioak galtzen ari diren herrietan bertso-saioen antolaketan lehen urratsa ematea da. Zinea itxi zen arte Soraluzen egiten zen gabonetako bertso saioa bertan behera gelditu zelako egin dio Bertsozale Elkarteak eskeintza Udalari eta Udaleko kultura batzordeburuak baiezkoa eman dio proposamenari. Bertso saioa abenduaren 17an egingo da eta adin eta lurralde ezberdinetako bertsolariak parte hartuko dute; Andoni Egaña, Jokin Sorozabal, Ion Barberena eta Ohiana Bartrak. Gaiak jartzeko ardura herriko bertso eskolarena izango da.

### Liburuzain berria

Orain hilabete batzuetatik hona liburuzain izandako ermuarrak baja eman ostean, Izaskun Anunzibai eibartarra da liburuzain berria. Oposizio lehiaketa egin artean bera izango da liburutegiko arduraduna. Udaleko administraziorako lehiaketan osatutako lan poltsatik aukeratua izan da.



## MENDIZABAL

**OKINDEGIA**

Kalebarren, 10  
Telefonoa 943 75 20 91  
Baltegieta, 6  
Telefonoa 943 75 13 99  
**SORALUZE**

## Etxabe Harategia



**Euskal txabalkia BILDUTSA**

**Merkatu Plaza 6-7 Postuak Telef. 943752375**

# Bullyngia jasan nuen...

Hondarribian gertatu den kasuaren arira, gaztetxoaren arteko harremanetan izaten diren jazarpen egoeren gaia azalatu da gizaratean. Pil-pileanek institutu garaian egoera hori jasan zuen gazte soraluzetar batekin berba egin du. Bere nortasunik ez du gu emango baina bai askori oso hurbilekoa gertatuko zaion testigantza lazgarria.

## Zelakoa izan zen zure esperientzia?

Oso gogorra. Ikastola amaitu eta beste herri bateko institutuan hasi nintzen, "bakarrik". Ikastola paradisua bazen, institutuko lehen bi urteak infernua modukoak izan ziren neretzat. Bapatean, inongo zergaitirik gabe "marikoi" deitzen hasi zitzaizkidan gelako "lagun" batzuk. Ni ez nengoen ohituta horrela iraindua izatera eta ez nekien nola erantzun. Arzoa puzten-puzten joan zen. Etenik gabe iraintzen ninduten eta baztertu, arrazoirik gabe. Munduko mutilik zorionsuena nintzenari, poliki-poliki bizitza amesgaizto bihurtu zidaten. Ez dakit nola, baina jasan nuen. Sufrimendu latzak pasata, gorriak ikusita.


## Kontatu zenion norbaiti gertatzen ari zitzaizuna?

Ez nion inori ezer esan. Negarraldi ederrak egin nituen baina beti ixilean. Etxean ez nuen inoiz ezer esan, herriko lagunei ere ez... igarriko zidaten zeozer baina... Behin, institutuan, ezin izan nion eutsi sufrimentuari eta negar egin nuen iraintzen nindutenen aurrean. Mesedez eskatu nien ez jarraitzeko baina alper-alperrik izan zen. Jende batek oso bihotz gogorra izaten du eta nahiago izaten du bere burua "goian" ikusi inorengatik errukitzea baino.

## Nola gainditu zenuen egoera?

Banekien eutsi ezkeru noizbait irten ahalko nuela zulo beltz hartatik. Beti izan nuen itzaropena eta horrek lagundu

*"Ikastola paradisua bazen, institutuko lehen bi urteak infernua modukoak izan ziren neretzat."*



**Bullyngak zulo beltzan hondoratzen du jende askoren bizitza eta gero ateratzen lanak.**

zidan aurrera eginen. Gainera, herrian lagun eta familia bikainak nituen eta institutuan bertan ere banituen lagun on batzuk. Horrek guztiak lagundu zidan zuloan beherago ez erortzen, oinarriko autoestima maila mantentzen. Poliki-poliki, ez dakit oso ziur nola, egoera hura atzean uzten joan nintzen.

## Bizitako egoerak orbainik utzi dizu?

Bi hiru urtean jazarpen egoera bat jasateak orbain gaizto asko uzten du. Urte horietan konpleju handia garatu nuen nere gorputzarekiko eta jendearenganako beldurra ere bai. Babes neurriak ziren orduan baina aldi berean gerora iraudidaten horma beltzak ere bai. Esperien-

tzia horrek preso uzten zaitu horma horien barruan eta asko kostatzen da horma horiek botatzea eta zure pertsonalitatea askatasunez berreraikitzea. Urte batzuk pasatu dira eta orain ondo nago baina beti gelditzen dira konpleju eta beldur batzuk. Eta beti pentsatzen dut, "kaguen! hori pasatu izan ez balitzait beharbada pertsonalitate sendoago bat izango nuke!". Ezin da jakin. Suposatzen dut esperientzia txar horrek erakutsi ere egingo zidala zer bait. Ziur nago baietz. Gainditu nuen eta gaitzerdi. Beste askok ez dute hori lortzen. Jokinen ipuina beste era batera amaitu da.

## Zer sentitu duzu Hondarribiko kasuaren berri jakin duzunean?

Tristura, lasaitasuna eta miresmena nahasian. Tristura sentitu dut imajinatzen dudalako bera sufritzen ari zena eta familia orain sufritzen ari dena. Lasaitasuna, bere sufrimendua amaitu delako. Eta miresmena, bere bizia emanda hautsak harrotu dituelako. Orain sufriarazten ziotenak sufritu beharko dute. Irteera bakarra ikusi zuen eta handik jo zuen, pentsa hortik ze sufrimendu izango zuen. Ez zen irteerarik egokiena beharbada baina...

## Zure ustetan zer egin daiteke arazo hauen aurrean?

Harritu egin nau gizaratean gai honek izan duen ohiartzunak. Izan duen ohiartzunagatik deduzitu liteke jende askok gertutik jasan duen arazo dela. Emakumeen aurkako tratua txarren kontua bezela ixilean egon da eta ez zaio garrantzirik eman. Gaia ateratzea eta horretaz eztabaidatzea pauso handia da. Nik ez dakit zergatia eta konponbidea zein diren, faktore asko izango dira tartean gaia lantzen joan ahala aterako direnak. Hainbat neska-mutiko infernua bizitzen ari dira euren bizitzako garairik zorionsuena bizi behar luketen momentuan. Ez dezagun gaia berriz ahazten utzi.

**LAUDIN**  
PROIEKTU ETA DISEINU INDUSTRIALA

Industrialdea, z/g  
138 Postakutxa

tf: 943752150  
Faxa: 943752118

**SORALUZE**

**GILA TABERNA**

Goizeko 6:30-etatik aurrera zabalik

**Gosarixak eta  
pintxo  
goxo goxuak !!**

Errabal kalea 15, Tfnoa 943 75 18 34



# Jubenilen taldeak 34 gol jaso ditu bost partidutan



Soraluze Futbol Taldeko jubenil mailako taldeak zorte handirik gabe hasi du denboraldia. Bost partidu berterik jokatu ez eta 34 gol jaso dituzte dagoeneko. Azken lau golak Aretxabale-

ta taldearen aurka sartu zizkioten. Azkenengo postuan doaz punturik gabe eta ia aurrerantzean zorte gehiago izaten duten. Gogoan izan behar da dena ez dela irabaztea!

## Jauregi Aginagako txapelketan irabazle

Iñaki Jauregi soraluzetar pelotariak Aginagako bikotekako txapelketa irabazi berri du Zabala bikotekidearekin batera. Finalean 22 eta 19 gailen du ziren Jauregi eta Zabala.

Jauregik hainbat txapelketa jokatzen dihardu eta asteburu honetan Interklub Txapelketako partidua jokatu du Usurbilen. Azkenaldian partidu asko jokatu ditu Iñakik.

## Urriaren 24an Idiazabalera

Datorren urriaren 24an Idiazabalgo Finalista Eguna irteera antolatuta du Mendi Taldeak. Urriko irteera bakarra izango da baina azaroan eta abenduan irteera gehiago izango dira. Azaroaren 7an Arabako "Cruz de Gnalto) 898 metroko mendira egun osoko irteera egingo dute, azaroaren 21an Deskarga-Soraluze ibilaldia eta abenduaren 19an Zumarragako Izzpera.

## EMAITZAK

### Futbola

-urriaren 2-3an-  
Santo Tomas 1 - SORALUZE 1 (Erre.)  
SORALUZE 0 - Ilintxa 4 (Juben.)  
Urki 3 - SORALUZE 2 (Kadet.)  
Soraluze 0 - Hernani 3 (Erreg.)  
Aretxabaleta 4 - Soraluze0 (Juben.)  
Soraluze 0 - Antzuola 11 (kadet.)

### Esku pilota

Haritz Laskurain  
Normaltasunez entrenatzen hasita dago dagoeneko eta laster partidua jokatzen hasteko itxaropena dauka.

### Iñaki Jauregi

Interclub Txapelketa Añorgan  
22-16 irabazi zuen

Oñatiko Txapelketako semifinala  
22-18 galdu zuen

Aginagako finala  
22-19 irabazi zuen zabalarekin

DVko Txapelketa  
22-20 galdu zuen  
Muguruza bergararrarekin

### Atxotegi

Eskuz banaka Elgoibarren  
22-03 irabazi zuen

Interklubean Hernaniren aurka  
22-07 irabazi zuen

## AGENDA

### Futbola,

Intxaurren - Soraluze (Erreg.)  
Soraluze - Urola (Juben.)  
Aitzgorri - Soraluze (kadet.)

تذکره تہذیبی

**GAZTELUPE**  
taberna

tel: 943 75 20 81

تذکره تہذیبی

**OITXURRI**  
ARDAU-DENDA

Gabolatz Kalea, 28  
20590 SORALUZE

☎ 605 768 151 (Naiara)  
☎ 667 479 350 (Roberto)

**ARMENDIA**  
JATETXEA

Ezoz Auzoa, 11  
20590 Soraluze  
Tfnoa 943 75 10 02

Sukaldaritza tradizionala

**Instalaciones Kalebarren S.L.**

GAS INSTALAKUNTZAK  
ETA PROIEKTUAK  
KALEFAKZIOA ETA AIRE EGOKITUA  
ITURGINTZA OROKORREAN

20590 SORALUZE TEL. / FAXA: 943 75 23 07 ESKUKO TEL.: 608 67 40 70 / 607 40 37 92  
48017 DEUSTU TEL.: 944 75 99 60 POSTA ELEKTRONIKOA: KALEBARREN@INICIA.ES

# Mikel Manzano

*“Astebururako planik onena herrixan Gaztetekeo kontzerturen bat entzutera juatia da”*

Kalea paseatzen gindoazela tope egin dugu berarekin. “Bera da!” pentsatu dugu biok, Mikel, 97. aleko mutila! Argazki makina ikusi duenean ihes egiten ahalegindu da baina laster gelditu da Txakarrak ileetatik heldu dionean. Gero argazkia ateratzeko barre pixkat egiteko eskatu diogu eta halaxe egin du. Zoritxarrez ezin izan diogu momentuan sortu zaion izerdia disimulatu. Hortik aurrera ahotan erabili ditugun gaiak hor behean dituzue, galderak eta Gaztetezeroaren erantzunak.

**Izen abizenak, adina ta lanbidea?**

Mikel Manzano, 20 urte eta ikaslia.

**Pelikula bat?**

Jungla de Cristal 3 Bruce Willys aktore protagonista daukana.

**Animali bat?**

Marrazkilua.

**Marrazkilua zergaittik?**

Ikastolako, herriko eta Pil-pileaneko sinbolo dalako.

**Zer falta jako Soraluzeri?**

Zinia, Kultur etxia, taberna gehixao gaztiendako...

**Eta zer dago soberan?**

Obrak eta zaratia.

**Zela ikusten dozu zure burua hemendik 20 urtera?**

Ezkonduta, etxe propioarekin, 2 umeekin, amaginarrebakin diskutitzen...

**Juergarako toki on bat?**

Gasteiz edo Oñati. Gazteizen jentia zabalagua da eta Oñatin giro euskalduna eta neska asko dare.

*“Nik asko landutako teknikak erabiltzen ditte ligatzeko baina Euskal Herrixan zaila da ligatzia”*


**Neskak aipatuta, ligatzeko orduan...**

Asko landutako teknikak erabili arren Euskal Herrixan zaila da ligatzia.

**Ointxe daukazu burua ondo saltzeko aukera.**

Mutil alaia naiz eta musika zalia.

Kirolak praktikatzia baino nahixago izaten dot ikustia; futbola, saskibaloia...informatika be gustatzen jata.



Mikel Manzano

## Bertso Begiz

*Altxor bat ba omen du  
balioz betea,  
barruan gordea.  
Ateratzen duenak  
zelako zortea.  
Gaztetekean saltoka  
badauka ospea,  
nunbaiten txorkatila  
okertu ordea!  
Uste gendunak zala  
dantzari trebea.*

*Neko*

*(doinua: asteburu aldera..)*

**Nora eruango zenduke neskalaguna?**

Neguan izotzetan patinatzerara, eta udan Euskal Herriko herrixak ikustera. Oso polittak egoten dira udan.

**Soraluzerako plan bat?**

Ostiral eta zapatutan gaztetekeo kon-

tzertuak entzun.

**Juerga bateko anekdota bat...**

Behin Gasteizen taberna batetik urten eta saltoka hasi nintzan. Hanka biurrittu neban eta gero etxera jua bihar izan nintzan. Gaba hartan ez neban oso ondo pasatu.

JAVIER ALONSO ZELAIETA

434 ZENB.KOL

HORTZ  
KLINIKA

MEDIKU ESTOMATOLOGOA



ATXURI 1-1. ESK TELF. 943 751613



**TXURRUKA**  
**JATETKEA**

SAN IGNACIO AUZOA - TEL. 75 15 81 - SORALUZE

## Argazki zaharra



## 1954 Elizako atarian

**G**oian (ezkerretik eskumara) Palo de Luis, Victor Laskurain, Pedro Arrieta, Ziriako Arizaga, Felix Urizar, Timoteo Agirrezabal, Pako Garcia. Behean (umeak) Ignacio Laskurain eta Ramon Arizaga.

*Iturria: Maria Urizar*

## Lehiaketa




Zer dago faltan edo zer soberan argazki honetan?

***Bi lagunendako afari mundial bat irabazi zeinke!!***

DEITU

**943 75 13 04 ra**

***Aurreko alean...***



erantzuna...:  
lehoiak bikoiztuta  
eta plazako marra bat kenduta

**...eta irabazlea:  
JULEN IRIZAR**

## Kontulan Aholkularitza S.L.

Enpresa aholkularitza  
Jabe Elkarteak  
Aseguruak

Santa Ana, 13 - 1 ezk.  
Tlfonoa: 943 75 17 82 Faxa: 943 75 01 82

20590 Soraluze  
GIPUZKOA

## Lakuesta Optika




Ikusmen arazoan frogak eta argibideak

Argazkiak errebelatzen ditugu

Santa Ana, 22 C- behea  
20590 Soraluze  
Tfnoa 943 75 30 59





# Ugaraxo

Aldizkari honek udalaren dirulaguntza jasotzen du euskara bultzatzeko



**I**kasturte berria hasi dela eta, hemen gaituzue aurtengo txikitxuenak.


Batzuk oso pozik gabilitza, jolas berri asko ditugu, gela batetik bestera joaten gara, baita pasilora ere aldentzen dugu jolas eta guzti, nahiz eta andereñoak ezetz esan amatuak baitaude kanpoan, gero

izango dira kontuak, atea itxi, amatxoek etxera alde egin eta andereñoak esandakoa egiteko ordua iristen denean.

Beste batzuk berriz, negargurea daukagu oraindik, ama, amama, zaintzaileak kanpoan gelditu behar direlako, laguntxo denak ere ez ditugu ezagutzen, andereñoak ere ez, baina lasai,

poliki-poliki gu ere moldatuko gara. Ze erremedio!

Oraingoan ere frontoiko gela eman diogu hasiera ikasturteari, baina Olentzero etorri ostean, aide gora gu ere gela berriak estreinatzerara, bizkortu beharko ditugu hanka txiki honek, aldapa ederrak igo beharrean izango gara gora iristeko eta.



## Lagunen lagun izan gaitezen!

Jokin etxetik irten zen egun sentian baina iñork ez zuen etxetik irteten entzun. Goizeko zazpiretan bere gurasoak bere semea esnatzera joan zirenean Jokin ez zegoen ohean, bizikleta hartu zuen eta Hondarribiko harresira joana zen eta bertan pauso bat eman zuen, bizitza eta heriotzaren arteko pausua hain zuzen ere.

Dena joan zen urtean hasi zen Jokinek gastroenteritis baten ondorioz klase erdian bere beharrak gainean egin zituenean. Eta orduan hasi ziren tratu txar eta burla guztiak. Hainbat egunetan zehar piper egin zuen eskolatik jipoirik ez jasotzeko.

*“Eta orduan hasi ziren tratu txar eta irain guztiak. Hainbat egunetan zehar piper egin zuen eskolatik jipoirik ez jasotzeko.”*

Udaleku batzuetan Zuhatzan Gaizteizeko uharte txiki batean hain zuzen ere, gauzak txarrera egin zuten. Monitore batek porroak erretzen harrapatu zituzten Jokin eta bere lagunak, eta Zuhatzako zuzendariak esan zien etxera gutunak bidaliko zizkietela. Bere lagunek gutunak etxera ez heltzea lortu zuten baina Jokinek ez. Bere gurasoek Jokinen lagunak gurasoei berria jakinarazi zieten, eta orduan Jokinek txibato fama hartu zuen lagun artean. Egunak pasa ahala gipoiak eta irainak areagotu eta gogortu egin ziren.

Eskolan hasi zirenean Jokinen berakoaren urteurrena ospatu



**Oier, Beñat, Gaizka, Aimar, Josu eta Oier izan dira Hondarribiko kasuaren inguruko artikulua idatzi dutenak.**

*“Tratu txarrak ez dira onak eta sufrimendu asko eragiten dute, bai biktimarengan eta bai familiarengan ere”*

zuten broma gisa, eta hori gutxi balitz eskolako gimnasioan baloi bonbardeaketa egin zioten bai bere edadekoek eta bai bera baino txikiagoek ere. Egun batzuk geroago Jokinek bizitzeko gogoak galdu zituen eta bere buruaz beste egin zuen. Hondarribiako harresitik bota zuen bere burua.

Gure ustez benetako lagun batek ez zion horrelakorik egingo. Edozein lekutan ikusten dira honelako tratu txarrak, bai kalean baita etxean ere baina ez

dira hainbestearainoko puntu grabeetara iristen, jende guztiak egiten ditu horrelakoak baina ez hain larriak. Askotan “jolas” modura egiten dira, egiten den mina neurtu gabe.

Esan behar da gu ere izan garela jipoitzaile eta jipoituak. Ondorioz, gu mezu bat bidaltzekotan gaude batipat gazteei eta horrelako jendeari: ez egin horrelakorik, tratu txarrak ez dira onak eta sufrimendu asko eragiten dute, bai biktiman eta baita bere familian ere, tratu txarrak jasotzen badituzu jo zuzenean nagusi batengana eta eman berri zure inguruko eta familiar guztiei.

Lagunen lagun izan gaitezen eta ez amesgaizto!





## TXIKI-INKESTA

Nun egon zara oporretan? Zer egin dozu?  
Zer moduz ikastetxe berrixan? Kexaren bat? Kurtso hasiera ondo?

**JOSEBA MORENO 11 URTE 5.MAILA**

Zamoran egon naiz.  
Jolasian ibili eta lagunekin ondo pasau dot.  
Ikastetxe berrixan ondo egoten da, bestia baino polittaua da.

**ANE ALBAREZ 10 URTE 6. MAILA B**

Galizian egon naiz. San Jenjon Gabetan piszi-nara juaten ginan eta lagunekin egon, txalet batean primeran. Eskola hau bestia baino hobeto dao, baina kolore zatrra dauka.

**DAVID IGLESIAS 9 URTE 5.MAILA**

La Medillan egon naiz oporretan, Salamankan. Ondo pasau dot han, nahiz eta hemen hobeto pasatzen doten. Eskolan ez da sekula ondo egoten.

**IVAN LOPEZ 8 URTE 3.MAILA B**

Segobian, primeran. Port aventurara juan ginan egun baten eta primeran pasau genduan. Eskola honetan oso ondo, dana dao oso politta.

**JULIA PIREZ 9 URTE 4.B**

Hemen egon naiz, baina plaiara juan naiz eta piszi-nara...  
Hau hobeto dao, gauza gehixao dare hemen. Kurtso hasiera ondo, lagun berrixak egin dittut eta.

**NEREA INARRA 8URTE 3.A**

Asturiasen egon gara, Villaviciosan. Eskursiñuak egin dittugu, hondartzara juan gara, oso ondo pasau dot. Eskola hau oso ondo dao, gauza gehixao dare, aszensora...

**Kantu-Kantari**

**BAT MARTIN PARRAT!**  
BAT Matxin Parrat!  
BI Mitxel Ipurdi!  
HIRU kolkua bete diru!  
LAU iko melau!  
BOST kokotian koxk!  
SEI korta bete behi!  
ZAZPI buru bete bazpi!  
ZORTZI katilu bete zorri!

**TOPE, TOPE, TOMATXA!**  
Tope, tope, tomatxa,  
hau da eskuen martxa.  
Tope, tope, tomatxa,  
basotik da bildotsa.  
Goian dago eguzkia,  
errekan zubia.  
Kirrinka doa gurdia,  
ssspum! suziria.



## Bertsolari edo dantzari izan nahi dozu?

Ibilixan Ibilixan Bertso Eskolak eta Urrats Dantza Taldeak laster batean hasiko dute ikasturtea. Dantzari edo bertsolari izan nahi baduzu eman izena.



Bertso eskolako ikasleak badakite kamarari begiratzen.

### BERTSO ESKOLA

Astean ordubetez bertso-tan eta kantuan egiten dugu bertso eskolan. Burua eta mingaina bixkortuko zaizkizu eta bertsolaritzaren mundua ezagutuko duzu. Bertso-tan ikasi nahi baduzu, zatoz Bertso Eskolako lokalera edozein egunetan!

### DANTZA TALDEA

Ostiral iluntzetan ordubetez entsaioak egiten ditugu. Neskak eta mutilak batera entsaiatzen dugu eta urtean zehar herri askotara joaten gara dantzara. Animatzen bazara, zatoz edozein ostiral iluntzetan eta ez zaizu damutuko!



Dantza taldean dantzaz gain barre ere egiten da!

## Tristuraren kontrako kantua

### “BEHIN EDO BEHIN”

Txirri Mirri eta txiribitonon  
“Hormatxulo” zintatik

Behin edo behin  
pentsatzen baduzu (BIS)  
munduan bakarrik zarela

Ez sinistu ene laguntxo  
ez sinistu ene adiskide

Behin edo behin  
ikusten baduzu (BIS)  
zelaian lore gorria

Maite zazu ene laguntxo  
maite zazu ene adiskide

Iluntasun  
eta ezbearrean (BIS)  
itota aurkitzen bazara

Ez izutu ene laguntxo  
argia etorriko da ta

Itsazgaiztoan  
dijoan txalupak (BIS)  
ixurtzen duen kemenaz

Jarrai zazu zeure bidean  
jarrai zazu ene laguna

Goizeko printzak  
nabaitu orduko (BIS)  
sentitzen baduzu poza

Zabal zazu zeure bihotza  
zabaldu egun berrira!



***matraka.info***



# igelaren **Banda**

EGUNA: **Urriaren 16an**

ORDUA: **22:30etan**

LEKUA: **Gaztetxean**

Sarrera dohainik izango da!

Antolatzailea:



Laguntzailea:



**bixente** martinez  
**txarli** de pablo  
**iñigo** egia



# EZOZIA JATETXEA

Zatoz eta gozatu  
gure jakiak!



EZOZI jatetxean bazkari eta afaririk  
ederrenak preziorik onenean.

Eguneroko menua  
eta aukera zabala kartara.

**Ezoi Auzoa Tel: 943 751001 SORALUZE**